

FUNTSEZKO JARDUERAK

Produkzioan oinarritutako negozioa da Agrobizi. Beraz, gure proiektuak funtziona dezan, zenbait jarduera egin beharko ditugu nekazarien, hiritarren eta konstumitzaileen koordinaziorako. Gure jarduerak egongo dira ekoizpenara eta banaketara zuzenduta.

Lehenik eta behin, gure harpidedunek janarien soberak botatzean, gu jarritako zabor berezietara botako dituzte. Zabor hauetara botatzeko gai izateko txartel bat emango zaizkie eta zaborrak izango duen sentsore baten bidez, hau detektatu eta irekiko da.

Bigarrenik, azpikontrataturako enpresaren jabetzako kamioi batzuek astero behin hiriko zaborrak hartuko dituzte eta hauek gure enpresaren azpiegituretan utziko dituzte. Espazio honetan, materia organikoa fertilizante ekologikoetan bihurtzen duen makina egongo da kokatuta eta honen bidez, hondakin guzti horiek fertilizante bihurtuko dira.

Ildo beretik, egindako fertilizante hauek kamioien bidez, enpresako kooperatibista diren nekazariei transportatuko zaie. Nekazariek, hauek baliatuz, haien lurrak ustiatuko dituzte eta barazkiak eta frutak produzituko dituzte.

Barazki eta fruta hauek supermerkatuetara edo merkatuetara transportatuko dira eta hor salduko dizkiegu hiritarrei.